



1) Bete hutsuneak dagokien hitzarekin

Aurrera eta atzera, ikusi pausu ____1____

Errepide zuzen honetan

Marraztutako bidetik ____2____

Haizearen ____3____

Puntu bati begira galtzen dugu ingurua

Eta bertan dauden ____4____

Baina ____5____ dira aukera berriak

Dira aukera berriak

Aukera berriak

____6____ ateak azaltzen hasten dira

Euren bila goazenean

Ausardiaren hegoak astinduz ____7____

Haizeak laztantzen nau orain

Aldetara begira ____8____ ingurua

Eta bertan dauden koloreak

Nire bidegurutzeak dira aukera berriak

Dira aukera berriak

Aukera berriak

Aukera berriak

Margotuko ditugu kolore berriak

Irekiko ditugu batera ateak

Margotuko ditugu kolore berriak

Orri zuri batetik ____9____ ____9____

Irekiko ditugu batera ateak

Oihartzunak ____10____ ____10____ erantzunak

Eta aukera berriak

Eta aukera berriak

Margotuko ditugu ...



2) Erantzun galdera hauei:

- Zein da abesti honen helburua?
 - a) Bizitzak azaltzen diren aukerak ikuspuntu positibo batetik begiratu behar direla.
 - b) Bizitzan dauden aukera berriak, beti arazoak sortzeko agertzen direla.
 - c) Aukera berriak, koloreekin gure aurpegia margotzeko eta oihartzunak erantzunak ekartzeko balio dutela.
- “Nire bidegurutzeak dira aukera berriak” aukeratu zer esan nahi duen esaldi honek.
 - a) Bidegurutze berriak aukeratu behar direla.
 - b) Bidegurutze batean zerbait aukeratu behar denean, arazoak sortzen direla.
 - c) Gauza berriak aukeratzeko momentuak, nahi duguna aldatzeko aukera ematen dutela.
- Berridatzi hurrengo esaldia, beltzez dagoen hitzaren sinonimoa idatziz.

“Hegaztiek hegotei **eragiten** dietenean, hegan egiteko gai dira”

3) Idatzi hurrengo hitzen esanahia

Oihartzuna: _____ Norabide: _____
 Ausardia: _____ Laztanten: _____

4) Bete hurrengo esaldien hutsuneak:

Errepide batean, oso ohikoa da autoarekin azkarregi joatea.

- a) Okertu
- b) Zuzen
- c) Arriskutsu

Zebra bideak gurutzatzeko, begiratu behar da.

- a) Aldamenetara
- b) Mugimendura
- c) Kemena

Pertsona, berain akatsak zuzentzeko eta hobetzeko indarra daukate.

- a) Maitakorrek
- b) Adoretsuek
- c) Beldurtiek

5) Idatzi esaldi bat hurrengo hitzekin: (Oihartzuna, ingurua)
